



KONTZERENTZIA EUOPARRA
2018 KULTUR ONDAREA
IRAGANEAN ETA ETORKIZUNEAN BERRITZEN

2018ko ABENDUAK 11 eta 12
VITORIA-GASTEIZ – EUSKADI (ESPAINIA)



XEDEA

Kultur ondarearen urte europarra izendatu dute 2018a. Kultur ondarearen inguruko adierazpen europarrek kultur eta kulturarteko aniztasuna sustatu nahi dute, bai eta kultur ondarearen kontserbazioa eta zaintza sustatu nahi ere, eta askotariko herritarrek kultur ondareaz gozatzea bilatzen dute.


Esparru horretan, CREADIS3-Smart Specialisation Creative Districts proiektuak (INTERREG EUROPE), zeina Eusko Jaurlaritzak gidatzen duen, biltzar europar hau sustatu du: Kultur ondarea: iraganean eta etorkizunean berritzen. Gasteizen egingo da (Euskal Autonomia Erkidegoa), 2018ko abenduaren 11n eta 12an.

Kultur ondarearen inguruko hainbat ikuspegi jorratu nahi dira biltzarrean, ekosistema sozial eta sortzailetzat hartuta kultur ondarea.

Iraganean berritzen leloaren pean, memoriaren ikuspegi sozialetik (gorabeheratsua eta gutxi finkatua) eta monumentuaren ikuspegitik (testuinguruaren arabera eta erlazionala) heldu nahi dio biltzarrek kultur ondareari. **Etorkizunean berritzen** leloaren pean, berriz, kultur ondarearen etorkizuneko agertokiaren inguruan eztabaidatu nahi da biltzarrean, gobernamentu-eredu berrietan, teknologiak txertatzeko estrategia berrietan (digitalizazioa) eta gizarteak parte hartzeko modu berrietan jarritz begirada.

Honako hauek dira konferentziaren xedeak:

- Kultur ondarearen berrikuntzei eta etorkizuneko agertokiei buruzko eztabaida sustatzea.
- Industria sortzaileen eta kultur ondarearen eremuan berrikuntzaren, gobernamentuaren eta klusterizazioaren arloan egin diren jardura onen berri ematea.
- Vitoria-Gasteizen kultur ondarean esperimentazioaren aldeko manifestua egitea bultzatzea.



PROGRAMA

11 ABENDUAK 2018

EGITARAUA

09:00 IZEN-EMATEAK

09:30 IREKIERA

10:15

- EUSKO JAURLARITZA. Joxean Muñoz jauna, Kultura Sailburuordea
- ARABAKO FORU ALDUNDIA. Joseba Pérez de Heredia jauna, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Zuzendaria
- VITORIA-GASTEIZKO UDALA. Estibaliz Canto andrea, Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzia
- SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA. Jon Lasa jauna, gerentea

10:15 INAUGURAZIO-HITZALDIA

11:00

MARÍA ÁNGELES QUEROL

KULTUR ONDAREA ETA ARKEOLOGIA: IKUSPEGIAK ETA ANIZTASUNAK

11:00 KAFEA

GAIA: GOBERNAMENDUA ETA EZAGUTZA

11:30 IREKIERA: JAVIER CASTRO-SPILA

11:45

TUULI LÄHDESMÄKI

11:45

12:15

EUROPAKO KULTUR ONDAREA: UKIEZINEN POLITIKAK

12:15

12:45

LEANDRO CÁMARA

KULTUR ONDAREAREN GOBERNANTZA SISTEMIKOA: SANTA MARIA KATEDRALAREN KASUA

12:45 BAZKARIA

EGITARAUA

11 ABENDUAK 2018

GAIA: GIZARTE-BERRIKUNTZA ETA HIRIKO TOKIAK

14:00

14:15

IREKIERA: **AGUSTIN AZKARATE**

14:15

14:45

JESÚS FERNÁNDEZ

GIZARTE-BERRIKUNTZA ETA ONDARE PUBLIKOA

14:45

15:15

SUSAN BAKER

GIZARTE-BERRIKUNTZA ETA TOKI JASANGARRIAK

GAIA: KULTUR BERRIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA

15:15

15:30

IREKIERA: **JAVIER ECHEVARRÍA**

15:30

16:00

ANNE GOMBAULT

IKT ETA KULTUR ONDAREA: AMILDEGIA ZEHARKATZEN

16:00

16:30

MARTA SEVERO

KULTUR ONDAREAREN ARLOKO PARTAIDETZA-PLATAFORMAK SAREAN

16:30

17:00

KAFEA

17:00

18:30

TAILERRA

ESPERIMENTAZIOA KULTUR ONDAREAN (MANIFESTUA)

EGITARAU

12 ABENDUAK 2018

09:30

10:30

ITXIERA-HITZALDIA

TERESA FRANQUEIRA

GIZARTE BERRIKUTZARAKO SORTZAILE ETA KULTUR GUNEREN
DISEINUA

10:30

11:45

MAHAI INGURUA

KULTUR ONDAREA: IRAGANEAN ETA ETORKIZUNEAN BERRITZEN

JESÚS FERNÁNDEZ, TUULI LÄHDESMÄKI, LEANDRO CÁMARA, SUSAN BAKER,
ANNE GOMBAULT, MARTA SEVERO ETA TERESA FRANQUEIRA.

11:45

12:15

KAFEA

12:15

13:15

ADIERAZPENA

ESPERIMENTAZIOA KULTUR ONDAREAN

TAILERRAREN ONDORIOAK ETA MANIFESTUAREN SINADURA

13:15

13:30

ITXIERA

16:00

SANTA MARIA KATEDRALERA BISITA GIDATUA

ONLINE IZEN-EMATEA

<https://innovating.catedralvitoria.eus/>

HIZLARIAK



INAUGURAZIO-HITZALDIA

MARÍA ÁNGELES QUEROL

KULTUR ONDAREA ETA ARKEOLOGIA: IKUSPEGIAK ETA ANIZTASUNAK

María Ángeles Querol Historiaurreko katedradun emeritua da Universidad Complutense de Madrid - UCMan (Madrilgo Unibertsitate Complutensea). Kudeaketa arkeologikoaren arloko karguak izan ditu; besteak beste, Kultura Ministerioko arkeologia zuzendariorde nagusia eta Andaluziako Arkeologia Batzordeko presidentea izan da. Horrez gain, Arkeologiako Gradu berriaren sustatzailea eta koordinatzailea izan da. 2017an Kultura Ondarea XXI. mendean: kudeaketa eta ikerketa izeneko Unibertsitate Arteko Masterra sustatu eta martxan jarri zuen. UCM eta UPM unibertsitateek parte hartzen dute master horretan. Kultura Ondarearen klusterraren koordinatzailea ere izan da Moncloa-ko Nazioarteko Bikaintasun Campusean. Ikerlari ere izan da, bi lerrotan aldi berean: alde batetik, Kultura-ondasunen kudeaketa, “La Gestión del Patrimonio Arqueológico en España” (“Espainiako arkitektura-ondarearen kudeaketa”) lanarekin edo, berriena, “Manual de Gestión del Patrimonio Cultural” (“Kultura ondarearen kudeaketarako eskuliburua”) izenekoarekin; eta bestetik, Arkeologia feminista, “La mujer en el Origen del Hombre” edo “Adán y Darwin” bezalako liburuekin.



TAILERRA: ESPERIMENTAZIOA KULTUR ONDAREAN

SANDRA LABASTIE

TAILERRAREN DINAMIZATZAILEA

Hizkuntzalaria (Sorbonako Unibertsitatea) eta idazlea da. Bereziki, eszenifikazio interaktiboan eta storytelling deritzon aritzen da, kulturaren eta ondarearen eremuan (balorizazioa, bitartekaritza, transmisioa).

Aldi berean, lantegi sortzaileak asmatzen, gidoiak egiten eta animazioa prestatzen egiten du lan (identitatea, eremu semantikoak, erabiltzailearen esperientzia, zerbitzuen diseinua, kultura-berrikuntzarako diseinuak).



ITXIERA-HITZALDIA

TERESA FRANQUEIRA

GIZARTE BERRIKUTZARAKO SORTZAILE ETA KULTUR GUNEREN DISEINUA

Teresa Franqueira diseinatzaile portugesa da eta diseinuko doktoretza tesia du. Aveiroko Unibertsitatean eskolak eman izan ditu 2001tik eta irakasle bisitaria izan zen Tongji Unibertsitatean (Shanghai, Txina), Politecnico di Milano-n (Italia) eta Portoko Unibertsitatean. Design Factory Aveiro gunearen zuzendaria eta ID+ Research Institute erakundearen goimailako ikertzailea da. Horrez gain, DESIS International erakundeko koordinazio batzordeko kidea, ID+ DESIS Lab-ren sortzailea eta koordinatzailea eta nazioarteko DESIS Network sarearen kide da. Bere ikerketa zerbitzuen diseinu eta gizarte berrikuntzan datza, eta egoera alternatiboak aztertzen ditu eredu ekonomiko, kultural eta sozial jasangarriagoak lortzeko asmoz. Irismen hori medio, nazioarteko hainbat hitzalditan hartu du parte eta hasierako hizlari eta moderatzaile lanetan ere aritu da tailerretan. Bere espezialitatea berrikuntza sozialerako zerbitzurako egoerak sortzen dituzten tailerrak dira, eta leku sortzaileetan proiektu zehatzak erabiltzeko konponbideak zehaztea. Diseinu konferentzia askoren kontseilu zientifikoaren parte da. Franqueira tokiko koordinatzailea izan zen Berrikuntza Sozial eta Ekonomia Zirkularri buruzko Europako 4 proiektutan.

PARTE HARTU

<https://innovating.catedralvitoria.eus/>

HIZLARIAK



GOBERNAMENDUA ETA EZAGUTZA

JAVIER CASTRO-SPILA
AURKEZPENA

Soziologoa. Doktorea da Filosofia, Zientzia, Teknologia eta Gizartean. Masterra dauka Goi Hezkuntzan. Ikertzaile nagusia eta zuzendari exekutiboa da Innovation Momentum Lab ikerketa-plataforman (Espainia), eta ikertzaile elkartua da Industria Teknologia Aurreratuen Goi Eskolan (ESTIA) (Frantzia).

Honako gai hauetara biltzen du ikerketa-eremua: gizarte-berrikuntza eta berrikuntza hibridoak; kultura-ondarea eta industria sortzaileak; eskualde-garapena eta berrikuntza-politikak; talentua eta sormena gizarte-berrikuntzan.



GOBERNAMENDUA ETA EZAGUTZA

TUULI LÄHDESMÄKI
EUROPAKO KULTUR ONDAREA: UKIEZINEN POLITIKAK

Tuuli Lähdesmäki (doktoretza tesia, Gizarte Zientzietako doktorea) Academy of Finland Research (Finlandiako Ikerketa Akademia) erakundeko kidea eta Jyväskylä Unibertsitateko (JYU) irakasle laguntzailea da Musika, Arte eta Kultura Ikasketen Sailean, Finlandian. Bere ikerketa eta argitalpenek hainbat gai jorratzen dituzte: EBko politikak, memoria kulturala eta iragana interpretatzeko estrategiak, nortasuna eta nortasunaren politikak, ondare kulturala eta populismoa. Lähdesmäki bi ikerketa proiektu zuzentzen ari da. Batetik, European Cultural Heritage in the Making: Politics, Affects and Agency (EUCHE), Finlandiako Akademiak finantzatuta. Bestetik, Legitimation of European Cultural Heritage and the Dynamics of Identity Politics in the EU' (EUROHERIT), Europako ikerketa Kontseiluak finantzatuta. Gainera, JYUko partzuergo lankidetzako burua da Dialogue and Argumentation for cultural Literacy Learning in Schools proiektuan (DIALLS), EBren H2020 programak finantzatuta. JYUko hiru buruetako bat ere bada ikerketa arloan: Crises Redefined: Historical Continuity and Societal Change (CRISES)



GOBERNAMENDUA ETA EZAGUTZA

LEANDRO CÁMARA

KULTUR ONDAREAREN GOBERNANTZA SISTEMIKOA: SANTA MARIA KATEDRALAREN KASUA

Leandro Cámara Muñoz, Madril, 1961, arkitektoa.

2008-gaur: Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulego teknikoko zuzendaria eta Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedrala zaharberritzeko obren arduraduna.

1987-2008: Arkitektura-ondareari eskainitako jardun liberala: erlijio-eraikinak zaharberritzea, eraikuntza zibilak eta arkeologia-aztarnategiak; zubi historikoen eta Goi Erdi Aroko elizen, eta eliza erromaniko, gotiko eta errenazentisten arkitekturaren arkeologia; fabrika eta egurrezko eraikinen azterketa konstruktibo eta estrukturala.

1979-1986: Escuela de Arquitectura de la Universidad Politécnica de Madrid - UPM (Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Arkitektura Eskola).



HIZLARIAK



GIZARTE-BERRIKUNTZA ETA HIRIKO TOKIAK

AGUSTIN AZKARATE
AURKEZPENA

Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldeko (GPAC) eta UNESCOren Paisaia Kulturalak eta Ondarea katedrako zuzendaria da. Irakaslea da hirugarren graduan. Antzinako Berantiarreko (k.o. VI-VII. mendeak) nekropolien talde bat aztertu zuen hasierako ikerketetan; garai hartako historiografian oihartzuna zuten nekropolien taldea, alegia.

Azken urteotan, arkitekturaren arkeologian eta paisaia kulturalen eremuan dabil lanean (Santa Maria katedrala, Armentia basilika, Añanako Gatz Harana, Gasteiz sortu aurretiko harresiak, Punta Begoñako galeriak).

Duela gutxi, kontinente amerikarrean kokatuta dauden hainbat proiektuekiko konpromisoa hartu du, GPAC eta UNESCO katedratik.



GIZARTE-BERRIKUNTZA ETA HIRIKO TOKIAK

JESÚS FERNÁNDEZ
GIZARTE-BERRIKUNTZA ETA ONDARE PUBLIKOA

Dr. Jesús Fernández doktoreak doktoretza tesia lortu zuen Oviedoko Unibertsitatean (Espainia). 2008az geroztik, hainbat landa-azterketa arkeologikoren zuzendaria da, eta zenbait unibertsitatetan dauden ikerketa proiektuen parte da. Gainera, 2012az geroztik, Fernández enpresaburu soziala da eta Asturiasen (Espainia) kokatutako arkeologia eta museo komunitate baten zuzendari da: La Ponte Ecomuséu. Doktoratu ondoko ikerlaria (Marie Curie Cofund) ere izan da Oxford Unibertsitatean (2015-2016).

Gaur egun, ikerlaria da Oviedoko Unibertsitatean eta ohorezko ikerlari elkartua Londreseko University College-n (Arkeologia Institutua). Ikertu dituen azken gaiak hauek dira, besteak beste: ondare kritikoa, gizarte berrikuntza ondare kulturalean, eta paisaia kultural eta Erdi Aroko gizartearen arkeologia.



GIZARTE-BERRIKUNTZA ETA HIRIKO TOKIAK

SUSAN BAKER

GIZARTE-BERRIKUNTZA ETA TOKI JASANGARRIAK

Susan Bakerrek lizentzia (ohorezkoa), masterra eta doktoretza tesiak egin ditu (EUIIn, Florentzian, eta honoris causa Umean, Suedian). Ingurumen-politika irakasten du Cardiffeko School of Social Sciences-en eta zuzendariordea da. Horrez gain, ikerlaria da Cardiff Unibertsitateko Sustainable Places Research Institute institutuan. Suediako King Carl XVI Gustaf Errege izendapena jaso zuen ingurumen-zientziako unibertsitate irakasle gisa. Izendapen hori jaso duen lehen emakumea da.

Royal Swedish Academy of Agriculture and Forestry (Suediako Nekazaritza eta Basozaintzaren Errege Akademia) eta Royal Society of Arts (Arteen Errege Elkarte) elkarleen kide da. Bere ikerketa prozesu sozial eta ekologiko konplexuen gobernamenduan oinarritzen da etorkizun jasangarria sustatzeko. UN IPBES erakundearen diziplina anitzeko adituen panelaren parte da, eta aholkulari zientifiko lanetan aritu da EB, Europako Batzordea, Suediako Ingurumenaren Babeserako Agentzia eta Galesko gobernu bezalakoekin. 160 lan baino gehiago argitaratu ditu, eta bere ikerlanak zenbait hizkuntzetara itzuli dira. Txostenak ere aurkeztu izan ditu nazioarteko elkarretaratzeetan.



HIZLARIAK




KULTUR BERRIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA

JAVIER ECHEVERRÍA
AURKEZPENA

Filosofian eta Matematiketan lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Konplutensean; unibertsitate berean eskuratu zuen Filosofiako doktoretza, eta Paris I Panthéon-Sorbonne Unibertsitatean egin zuen 'doctorat en lettres et sciences humaines' doktoretza. Irakaslea da Madrilgo Eskola Politeknikoan, eta Filosofia eta Logikako katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU).

Irakasle ikertzailea izan da Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluaren (CSIC) Filosofia Institutuan. Gero, eszedentzia hartuta, ikertzaile aritu zen Zientziarako Euskal Fundazioan (UPV/EHUri loturik dago), eta, gaur egun, bertan egiten du lan.

Aditua da zientziaren etikan eta filosofian, bai eta teknologiaren, zientziaren eta informazioaren teknologia berrien arteko harremanetan eta gizakiek eta gizarteak multzo gisa duten eginkizunean ere.



KULTUR BERRIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA

ANNE GOMBAULT
IKT ETA KULTUR ONDAREA: AMILDEGIA ZEHARKATZEN

Anne Gombault KEDGE Business School erakundeko antolakuntza-portaera eta kudeaketa irakaslea da. Bertan, Creative Industries Culture Research Center (Industria Sortzaileen Ikerkuntza Kulturalaren Zentroa) zentroaren eta Arts and Creative Industries Management (Arteen eta Industria Sortzaileen Kudeaketa Masterra) masterraren zuzendaria da Parisen. Horrez gain, 2019ko udazkenean sortuko den Shangaiko Sino-French Institute of Arts and Design Management (Arteen eta Diseinuaren Kudeaketaren sino-frantses Institutua) institutuaren eduki akademikoa kudeatzearen buru da. Bere ikerlan nagusia antolakuntza-identitatea, portaera eta erakunde artistiko eta kulturalen eta industria sortzaileen estrategia da, hala nola, museoak, ondarea, sormenezko turismoa, ardoa eta likoreak, luxua eta artisautza, eta eskualde sortzaileak. Hainbat erakunderentzat egin ditu ikerlanak: Europar Batasuna, Frantziako Kultura eta Komunikazio Ministerioa, tokiko museoak, hala nola, Louvre, Orsay eta Guimet, Frantzia eta Europako eskualde eta hiriak, eta erakunde eta negozio kulturalak. Bere ikerlana Frantzian eta nazioartean argitaratu da. Ondare digitalari buruzko ikerlanak ekoitzi ditu orain dela gutxi.



KULTUR BERRIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA

MARTA SEVERO

KULTUR ONDAREAREN ARLOKO PARTAIDETZA-PLATAFORMAK SAREAN

Marta Severo komunikazioko irakasle elkartua da Parisko Nanterre Unibertsitatean eta Frantziako Institut Universitaire-ko kide hasiberria. Dicen laborategiko kide eta zuzendariordea da. Institutuzio karguez gain, 2012az geroztik, Komunikabideak eta lurraldeak gaia koordinatzen du Pariseko International College of Territorial Sciences (CIST) unibertsitatean. Bere ikerketa giza zientzien jardueran zentratzen da, webgunean oinarritutako datuak erabilia.

Ikerlana bi eremutan oinarritzen du: (i) ondare kulturalaren eta memoriaren eraikuntza kolektiboa eta (ii) leku eta espazioaren ordezkapen digitala. Hainbat aldizkari nazional eta nazioartekoetan argitaratu izan du. Horrez gain, diru-laguntza asko jaso izan ditu: H2020, ANR, Labex, CNRS, ESPON.... Nabarmendu beharrekoa da ANR agentzia frantsesak finantzatutako proiektua lankidetzak kulturalerako plataformen gainean. Horrez gain, bi liburu argitaratu berri ditu: Patrimoine culturel immatériel et numérique (2017) eta Traces numériques et territoires (2015).



ESPERIMENTAZIOA KULTUR ONDAREAN MANIFESTUA

➤ Ezagutzaren gobernantza sozialeko jardunbide egoki bezala, **komunitate esperimentalak** sustatzea

Komunitate esperimentalak gizarte bitartekaritzarako aukerak dira, parte-hartzea sustatzen duen diseinuaren kultura, metodologia arinak eta berrikuntza arduratsua bultzatzen dutenak. Esperimentazioaren printzipioak aplikatuz, berrikuntza barnehartzaileak sustatzen dituzte kultura-ondarean; hala, prototipo berritzaileak sortzen dira (baterako diseinua, probatze azkarra eta egon litezkeen inpaktuak aurretik ezagutzea).

➤ Parte-hartzea sustatzen duen gobernantzako jardunbide egoki bezala, **inklusio esperimentala** sustatzea

Inklusio esperimentalak esan nahi du kultura-ondarearen arloan eraldaketan parte hartzeko mekanismoak garatzea. Mekanismo horiei esker, bazterketa-arriskuan dauden taldeen ibilbidea aldatu daiteke, kulturaren arloko gaitasunak garatu (kapital kulturala), harreman eta aukera berriak sortu (harremanei lotutako kapitala) eta gizarte zein kulturako partaide sentiaraztea lortzen baita; eta hori da, hain zuzen, gizarte-bazterkeria gertatzen denean galtzen dena (kapital soziala).

➤ Gobernantza akademikoko jardunbide egoki bezala, **ikaskuntza esperimentala** sustatzea

Ikaskuntza esperimentala testuinguruan jarritako ikaskuntzako metodologia hibridoetan oinarrituta dago, hau da, konponbide esperimentalak diseinatu eta probatzen dira, ondareak dituen arazoen baldintza historiko, espazial, sozial eta kulturalak aintzat hartuz (testuinguruan jartzea), aztertze moduak demokratizatuz (parte-hartzea) eta askotariko stakeholder-ekin batera esperimentatuz (lankidetzaz).

➤ Trantsizioko gobernantzako jardunbide egoki bezala, **jasangarritasun esperimentala** sustatzea

Iraunkortasun esperimentala trantsizioko berrikuntzen garapenean oinarrituta dago. Trantsizioko berrikuntzak proiektuak dira, ondarearen esparruan eredu jasangaitzak jasangarri bihurtzeko trantsizioa egiteko konponbideak aurkitzea helburu dutenak. Trantsizioko berrikuntzak sekuentziatutako esperimentazioko eredu batean sartzen dira; horri esker, epe luzerako ziklo esperimentalen barruan sartzen diren epe laburrerako proiektu pilotuak kudeatu ahal dira.

➤ **Gobernantza instituzionaleko jardunbide egoki bezala, *kulturaren arloko politiketan esperimentazioa* sustatzea**

Politika esperimentalak politikako tresna eta programa berrien probatze sozial eta teknologikoa dira, eskala txikian. Politiketan esperimentatzea prozesu instituzionala da, kultura-ondarearen sektoreko araudi, programa edo pizgarriei lotutako oinarriak adostea helburu duena.

➤ **Gobernantza teknologikoko jardunbide egoki bezala, *esperimentazio teknologikoa* sustatzea**

Esperimentazio teknologikoak ondarean aplikatzen diren teknologien probatze sozial eta teknologikoa esan nahi du. Ondarearen arloan aplikatzen diren teknologiak ez dira soilik digitalak (berrikuntza digitala), honako hauek ere badira: teknologia sozialak (ondareari lotutako berrikuntza arinak, berrikuntza turistikoak), zaharberritzeko teknologiak (estratigrafikoak, besteak beste), materialei lotutako teknologiak (teknika analitiko ez-inbaditzaileak, bestea beste) eta teknologia instituzionalak (kultura-plangintzarako sistemak, pizgarri publikoen ereduak, finantzaketa mistoko sistemak etab.)

➤ **Finantzaketa gobernantzako jardunbide egoki bezala, *finantzaketa esperimentala* sustatzea**

Finantzaketa esperimentalak finantzaketa hibridoko (publikoa, pribatua eta soziala) ereduak eta tresnak probatzea esan nahi du, kultura-ondarearen eremuan eragile ekonomiko eta instituzionalen erantzuna aztertzeko. Finantzaketa esperimentala handituz doan probatzearen ereduari jarraiki egiten da, hau da, laborategian hasi (micro maila) eta finantzaketa hibridoko proiektu pilotuetara zuzentzen da (meso maila).

➤ **Inpaktuaren gobernantzako jardunbide egoki bezala, *ebaluazio esperimentala* sustatzea**

Ebaluazio esperimentalak trantsizioko berrikuntza baten inpaktuak (sozialak, ekonomikoak, espazialak, instituzionalak, kulturalak eta ingurumenekoak) ulertzea eta neurtzea esan nahi du. Ebaluazio esperimentalak berrikuntzaren ondorio negatibo eta positiboen arteko lotura teknikoa aztertzen du, bai eta eredu jasangarrietarantz zuzentzeko trantsizioa sustatzeko duen gaitasuna ere.

PARTE HARTU

<https://innovating.catedralvitoria.eus/>

KONFERENTZIA EUOPARRA - 2018 KULTUR ONDAREA
IRAGANEAN ETA ETORKIZUNEAN BERRITZEN
2018ko ABENDUAK 11 eta 12 - VITORIA-GASTEIZ – EUSKADI (ESPAINIA)

